Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen Araubideari buruzko uztailaren 27ko 16/1983 Legeko 4. atalaren arabera, Erakundearen xedek eta helburuak honako hauek dira:

1. Euskal administrazio autonomoak kontratatu behar dituen funtzionario eta langileak aukeratzea. Aukeraketa-lan horiek atxikitako Saileko dagozkion zerbitzuekin koordinatu beharko ditu.
2. Beste administrazio publikoren batek edo araubide juridikoak eskatutako funtzionario-aukeraketak egitea.
3. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioko funtzionariak eta kontratatuak prestatzea eta hobetzea eta beste edozein administrazio publikok edo araubide juridikoak eskatutako prestakuntza nahiz hobekuntza eskaintzea.
4. Lurralde Historiko, Udalerri eta Euskadiko Toki-Administrazioko gainerako erakundeekiko lankidetzak bultzatzea, beren langileak prestatzea.
5. Euskara administrazio publikoan sartu, zabaldu, ezarri eta normaltzea eta euskarazko administrazio-hizkera zehaztea, Euskararen Erabilpena Arauzkotezko Oinarrizko Legean erabakitakoarekin bat.
6. Euskadiko administrazio publikoek legearen, finantzen eta estadistikaren aldetik dituzten berezitasunak ikertu, irakatsi eta ezagutzera ematea.
7. Administrazio-zientzia ikertu, irakatsi, ezagutzera eman eta euskal administrazioetan ezartzea.
8. Espainako edo atzerriko antzeko beste erakunde batzuekin elkartrukeak eta hitzarmenak egitea.

**ERAKUNDEAREN JARDUERAK**

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen egitura eta eginkizunak arautzen dituen urriaren 14ko 241/2003 Dekretu bidez erabaki zela, jarduerak hauek izango dira:

**1216 programa**

- Erakundeari lotuta dauden programak eta eskolak kudeatzea bai ekonomia eta finantzen aldetik eta baita legearen aldetik ere.
- Euskal administrazioek lege nahiz politikaren aldetik, administrazio-antolamenduaren aldetik eta ekonomiaren aldetik dituzten berezitasunak ikertu, irakatsi eta ezagutzera ematea.
- Zuzenbide publikoari eta administrazio-zientziari buruzko hitzaldi, ihardunaldi eta mintegiak. Garrantzi berezia emango zaio euskal autonomiaren errealitateari.

**INTRODUCCIÓN**

La ley 16/1983, de 27 de julio, sobre Régimen Jurídico del Instituto Vasco de Administración Pública, en su artículo 4 establece entre los fines y objetivos del Instituto:

1. La selección de funcionarios y del personal a contratar por la Administración Autónoma del País Vasco, coordinando sus actuaciones, en este campo, con los servicios correspondientes del Departamento al cual está adscrito.
2. La selección de los funcionarios que otra Administración Pública o el Ordenamiento jurídico pudiere encomendarle.
3. La formación y perfeccionamiento de los funcionarios y contratados de la Administración Autónoma del País Vasco, o que cualquier otra Administración Pública o el ordenamiento jurídico pudiere encomendarle.
4. Fomentar la colaboración con los Territorios Históricos, Municipios y demás Entidades de la Administración Local de Euskadi en la formación y perfeccionamiento de su personal.
5. La introducción, difusión y aplicación y normalización del euskera en la Administración Pública, así como la fijación de su lenguaje administrativo, en cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Básica de Normalización del uso del Euskera.
6. La investigación, docencia y difusión de las peculiaridades jurídicas, financieras y estadísticas de las Administraciones del País Vasco.
7. La investigación, docencia y difusión de la ciencia de la Administración y su implantación en las diversas Administraciones del País Vasco.
8. El establecimiento de intercambios y convenios con otras entidades análogas españolas o extranjeras.

**ACTIVIDADES DEL ORGANISMO**

Teniendo en cuenta el Decreto 241/2003, de 14 de octubre, por el que se regula la estructura y funciones del Instituto Vasco de Administración Pública, las actividades serán:

**Programa 1216**

- Gestión económico-financiera y jurídica de los diferentes programas y escuelas adscritas al Instituto.
- Investigación, docencia y difusión de las peculiaridades jurídico-políticas, administrativas y económicas de las Administraciones Vascas.
- Congresos, Jornadas y Seminarios de carácter académico sobre el Derecho Público y la Ciencia de la Administración, con especial incidencia en la realidad autonómica vasca.

- Hirigintzarekin, lurralde-antolamenduarekin eta ingurumenarekin zerikusia duten gai teknikoekin eta metodologiaren inguruko prestakuntza eskaintzeko eta gai eta metodologia horiek zabaltzeko jarduerak.
- Euskadiko administrazio orokorreko nahiz erakunde-mailako administrazio funtzionarioak eta lan-legepekoak aukeratzea. Euskadiko beste administrazio batzuetakoak ere aukeratu dituzte, administrazio horiek bere eskatuz gero.
- Euskal Autonomi Erkidegoko administrazio orokorreko eta erakunde-mailako administrazio langile publikoek lan-prestakuntza eta hobekuntza eskaintzeko ikastaroak eta mintegiak.
- Euskal toki-administrazio eta foru-administrazio langile publikoek lan-prestakuntza eta hobekuntza eskaintzeko ikastaroak eta mintegiak.
- Actividades formativas y de divulgación de materias técnicas y metodologías vinculadas al Urbanismo, la Ordenación del Territorio y el Medio Ambiente.
- Selección de personal funcional y laboral de la Administración General e Institucional del País Vasco y de otras Administraciones Públicas de Euskadi que así lo encomienden.
- Cursos y seminarios de formación y perfeccionamiento profesional de los empleados públicos de la Administración General e Institucional de la Comunidad Autónoma Vasca.
- Cursos y seminarios de formación y perfeccionamiento dirigidos a los empleados públicos de las Administraciones local y foral vasca.

#### 4714 programa

- Euskadiko administrazio publikoetako langileen eta funtzio publikorako sarbidean parte hartzen ari direnen euskara-maila neurtzea hizkuntza-eskakizunen egiaztapenean arabera.
- Euskal administrazioetako langile publikoen hizkuntza gaitasuna: euskalduntzeko eta alfabetatzeko ikastaroak.
- Administrazio agiriak normaltzea eta euskarazko administrazio-hizkera zehaztea.
- Administrazio euskara hedatzeko eta hizkuntzaren erabilera bultzatzeko argitalpenak prestatzea.
- Administrazio publikoetako langileen euskalduntze-alfabetatze prozesuak bideratzeko aholkularitza-lana.
- Euskararen eta gaztelaniaren arteko itzulpena eta interpretazioa.
- Administrazioarentzako euskarazko terminologia.
- Itzultzaileak, interpreteak eta terminologoak prestatzea.

#### Programa 4714

- Evaluación del conocimiento del euskera basado en la acreditación de los perfiles lingüísticos del personal al servicio de las Administraciones Públicas de Euskadi y del inserto en los procesos selectivos de acceso a la Función Pública.
- Capacitación lingüística de los empleados públicos de las administraciones vascas: cursos de euskaldunización y alfabetización.
- Normalización de documentos administrativos y fijación del lenguaje administrativo en euskera.
- Realizar publicaciones que contribuyan a la difusión del euskera administrativo y a la promoción de la lengua.
- Asesoramiento a las Administraciones Públicas en materia de euskaldunización-alfabetización de su personal.
- Traducción e interpretación entre el euskera y el castellano.
- Terminología en euskera para la Administración.
- Formación de Traductores, Intérpretes y Terminólogos.

#### 2005EAN EGINDAKO LANIK GARRANTZITSUENAK

- Web aplikazioak migratzea, weblogic 5 bertsiotik weblogic 8 bertsiora, Eusko Jaurlaritzak ezarritako estandarren arabera.
- IVAPen web-orria edukia kudeatzeko Intervowen sistema berrira migratzea, eta ekainaren 8ko 108/2004 Dekretuak, Interneteko presentzia-ereduari buruzkoak, ezartzen dituen irizpideetara egokitzea.
- Euskalduntze-ikastaroetako aplikazioetan, hizkuntza-eskakizunen egiaztapenetan, lan-poltsetan eta LEPen kudeaketan mantentze- eta egokitzapen-lanak egitea.

#### PRINCIPALES REALIZACIONES DURANTE 2005

- Migración de las aplicaciones web, de la versión weblogic 5 a weblogic 8, según los estándares establecidos por el Gobierno Vasco.
- Migración de la página web del IVAP al nuevo sistema de gestión de contenidos Intervowen y adecuación a los criterios establecidos por el decreto 108/2004, de 8 de junio por el que se establece el modelo de presencia en internet.
- Mantenimientos adaptativos en las aplicaciones de Cursos de Euskaldunización, acreditación de perfiles lingüísticos, Bolsas de Trabajo y Gestión de OPE's.



- Administrazio Publikoarekin zerikusia duten gaiet buruzko ikastaro eta jardunaldiak antolatu eta burutu, beste ikerketa eta prestakuntzako zentruetara batera (Arabazo Kontzejuko Elkarteak, EHU-UPV, ASMOZ). Aurtengoak gai horien inguruan burutu ditugu: Europar Batasuneko Konstituzioa, Europar integrazioa eta botere judiziala, Arabazo Kontzejuko ekonomia, Gobernu elektronikoa, diru-laguntza publikoak eta Euskal autogobernua. Europar Batasuneko Konstituzioari buruzko elkarreraginezko goi ikastaroak garatzeko ASMOZ Fundazioarekin sinatutako lankidetzak hitzarmenaren jarraipena egin da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko ikasleen parte hartzea sustatzeko asmoz.
- Zuzenbide Publikoaren eta Administrazio Zientziaren alorrean ikerketa eta langile espezializatuen prestakuntza sustatu. Dagoeneko kudeatu dira 2004-2005 bitarteko beka eta laguntzetarako deialdien azken zatia, 2005-2006 bitarteko beka eta laguntzetarako deialdien lehen zatia, eta 2005eko ikerketa-saria. Hauek izan dira aztergai nagusiak: datuak babesteko euskal bulegoaren sorrera; datuen babesa Euskal Herriko zerga eta finantza sisteman; Toki-administrazioaren herri-kontsultak; Gipuzkoako probintziako diputazioa Primo de Riveraren diktaduraren garaian; Hernanin ezarri diren partaidetza-mekanismoak; biztanleen partaidetza Euskal Autonomia Erkidegoan kudeaketa publiko eraginkorra lortzeko elementu nagusi gisa; eta toki-administrazioetako komunikazioa.
- Zuzenbide Publikoa eta Administrazio Zientzia, batez ere Euskadiko herri-araubidearen berezitasunak, hobeto ezagutzeko eta aldi berean ezagutzera emateko balioko duten azterlanak eta ikerlanak argitaratzea.
- Herri-Ardurularitzako Euskal Aldizkariaren alderdi teknikoa kudeatzea.
- Hainbat Administrazio Publikoen jarduerak hobetzeko eta arrazoitzeko egindako aholkularitza eskaerei erantzuna ematea. Hori dena, bai idatzizko txostenen bidez, bai ahozko kontsultei erantzunen bidez, bai administrazio eskatzaileak garatu dituen kudeaketa prozesuetan laguntza-partaidetzaren bidez.
- Euskal Herriko Unibertsitatearen lankidetzan hasitako graduatuentzako ikastaroak sendotzea.
- Iraupen luzeko hirigintzako ikastaroak antolatu, kudeatu eta garatzea. Ikastarook funtzionarioak, profesionalak eta graduatundokoak prestatzeko mota horretako irakaskuntzan erreferentea dira, bai EAEn bai Estatuan. Horren erakusgarri da ikastaro horiek XXI. eta XXII. aldiz antolatzea, Bilbon eta Donostian.
- 300 orduko praktika-programa antolatu eta garatzea lanbide-esperientziarik ez duten iraupen luzeko XIX. eta XX. hirigintzako ikastaroetako ikasleentzat.
- Hirigintzari eta lurralde-antolamenduari buruzko ikastaro espezializatuak antolatu, kudeatu eta garatzea funtzionario eta profesionalentzat.
- Hirigintzaren eta ingurumenaren arloan, ikerkuntza eta espezializatutako pertsonalaren prestakuntza sustatzea, beka eta diru laguntza deialdien bidez.
- Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioentzako Ingurumen Prestakuntzako Plana 2003-2006 garatu, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailarekin eta IHOBErekin lankidetzan, batez ere Agenda Local 21 dagokionari.
- Organizar eta celebrar, conjuntamente con otros centros de formación e investigación (Asociación de Concejos de Alava, EHU-UPV, ASMOZ), cursos y jornadas sobre temas relacionados con la Administración Pública, especialmente centrados en la Constitución Europea, la integración europea y poder judicial, la economía de los Concejos alaveses, el gobierno electrónico, las subvenciones públicas y el autogobierno vasco. Se ha realizado el seguimiento del convenio de cooperación firmado con la Fundación ASMOZ para el desarrollo de un curso interactivo sobre la Constitución Europea, con el objeto de fomentar la participación en el mismo de alumnado perteneciente a la Administración General del País Vasco.
- Promover la investigación y la formación de personal especializado en el ámbito del Derecho Público y la Ciencia de la Administración. Se ha gestionado la parte final de las convocatorias de becas y ayudas del periodo 2004-2005, la parte inicial de las convocatorias de becas y ayudas del periodo 2005-2006, y el premio de investigación correspondiente al 2005. Las áreas objeto de investigación se han centrado en la creación de la oficina vasca de protección de datos, la protección de datos en el sistema tributario y financiero del País Vasco, las consultas populares en la administración local, la Diputación Provincial de Guipúzcoa durante la dictadura de Primo de Rivera, los mecanismos de participación en el municipio de Hernani, la participación ciudadana como elemento central de una gestión pública eficiente en el País Vasco y la comunicación en las administraciones locales.
- Edición de estudios e investigaciones que contribuyan al mejor conocimiento y difusión de la Administración Pública y la Ciencia de la Administración, con especial incidencia en las peculiaridades del régimen público vasco.
- Gestionar, en su vertiente técnica, la Revista Vasca de Administración Pública.
- Atender las solicitudes de asesoramiento de las diferentes Administraciones Públicas en aspectos que redunden en la mejora y racionalización del funcionamiento de éstas, tanto mediante la elaboración de informes escritos, como mediante la respuesta a consultas orales o el acompañamiento en procesos de gestión de la administración solicitante.
- Consolidar los cursos de formación de postgrado iniciados en colaboración con la Universidad del País Vasco.
- Organización, gestión y desarrollo de los cursos de urbanismo de larga duración, referente en este tipo de enseñanza tanto en el País Vasco como en el resto del Estado, para formar a funcionarios, profesionales y postgraduados. Clara muestra de ellos es la realización de la XXI. y XXII. edición de estos cursos que se desarrollan en Bilbao y Donostia-San Sebastián.
- Organización y desarrollo de un programa de prácticas de 300 horas en instituciones vascas para los alumnos del XIX. y XX. curso de urbanismo que carecen de experiencia profesional.
- Organización, gestión y desarrollo de cursos especializados en materia urbanística y territorial para funcionarios y profesionales.
- Promoción de la investigación y formación de personal especializado en el ámbito del Urbanismo y del Medio Ambiente.
- Desarrollar el Plan de Formación Ambiental 2003-2006 para las Administraciones Públicas Vascas, en colaboración con el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio e IHOBE, en especial en lo relativo a los cursos sobre Agenda Local 21.

- Hirigintzarekin eta ingurumenarekin erlazionatutako argitalpenak bultzatzea, horien artean, EAEn ingurumenaren arloan aplikatzen diren leguen konpilazioak, edo EAEko hirigintzako legeak.
- Hainbat aukeraketa-programatarako deialdiak egin eta garatzea, EAEko Administrazio Orokorrean aldi baterako zerbitzuak egiteko lan-poltsak sortzea helburu (estatistikako agenteak eta ikuskatzaileak, eta administrari laguntzaileak).
- Lan-eskaintza publikoan oinarritutako hainbat hautaketa-prozesu deitu eta garatzea, lanpostu finkoak betetzeko (Arrantza-ikuskatzaileak eta Baliabide orokorretako teknikaria).
- EAEko Administrazio Orokorrean aldi baterako zerbitzuak egiteko lan-poltsak sortze aldera deitu ziren hautaketa-prozesuak kudeatzen amaitzea (arkeologoak, SHEEn lizentziatuak, arkitekto teknikoak, goi-mailako ingeniariak, industria-ingeniari teknikoak eta epidemiologia-jagoletzako teknikariak).
- Lanpostu finkoak betetzeko lan-eskaintza publikoan oinarrituta deitu ziren hautaketa-prozesu batzuk kudeatzen amaitzea (Zumarragako "Ibaiondo" ikastetxea eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailerako sukaldeko langileak).
- Gipuzkoako Foru Aldundiko lekualdatze-lehiaketako azterketak prestatu eta zuzentzeko lanak koordinatzea.
- Bizkaiko Uren Partzuergoko azterketak prestatu eta zuzentzeko lanak kudeatzea.
- Hautaketa-prozesuetan, ofimatikako ezagutzak ere ebaluatzea. Horretarako, IT-Txartela aurkeztuko da, Europako Software Erakundeak eta KZguneak elkarlanean sortutakoa.
- 2005ean, prestakuntza- eta hobetze-jarduerak antolatzen eta prestatzen jarraitu da, administrazio orokorreko nahiz foru- eta toki-administrazio langileentzat.
- Prestakuntza-beharren analisiak prestatzea eta horietatik ondorioztatutako jardunak aurkeztu, lehenetsi eta abiaraztea.
- Beste antolakunde batzuekin administrazio publikoko langileak prestatu eta hobetzera bideratutako esperientziak trukatzeko.
- Bezero-zerbitzariko prestakuntza-ikastaroak kudeatzeko aplikazioa (sql-windows) J2Een web-ingurunera migratu eta ezartzeko lanak kontratatzea, Eusko Jaurlaritzak ezarritako estandarren arabera.
- On line ikastaroen merkatuan, prestakuntzako arlo ezberdinetan eskaintzarik ba ote dagoen ikustea eta, hala badagokio, eskaintzarik egokiena aukeratzea.
- Hainbat arlotan adituak diren pertsonen laguntzarekin on line ikastaro berrien edukiak prestatzea, ondoren administrazio guztien eskura jarri ahal izateko.
- EJIEk on line ikastaroak eskaintzeko SABA plataforma berria eskura jar dezan bultzatzea.
- Beste erakunde eta administrazio batzuekin batera administrazio elektronikoari buruzko jardunaldi eta mintegiak antolatzea.
- Impulsar la edición de publicaciones urbanísticas y medio ambientales como las compilaciones de Legislación en materia medioambiental de aplicación en la CAPV y de Legislación Urbanística de aplicación en la CAPV.
- Convocar y desarrollar diversos procesos selectivos al objeto de crear bolsas de trabajo para la prestación de servicios de carácter temporal en la Administración General de la CAPV (Agentes estadísticos, Inspectores Estadísticos y Auxiliares Administrativos).
- Convocar y desarrollar diversos procesos selectivos derivados de la Oferta de Empleo Público para personal laboral fijo (Inspectores de pesca y Técnico de Recursos Generales).
- Finalizar la gestión de diversos procesos selectivos convocados para la creación de bolsas de trabajo para la prestación de servicios de carácter temporal en la Administración General de la CAPV (Arqueólogos, Licenciados IVEF, Arquitectos Técnicos, Ingenieros Superiores, Ingenieros Técnicos Industriales y Técnicos de Vigilancia Epidemiológica).
- Finalizar la gestión de diversos procesos selectivos derivados de la Oferta de Empleo Público para personal laboral fijo (Centro "Ibaiondo" de Zumárraga y personal de cocina del Departamento de Educación, Universidades e Investigación).
- Coordinar la elaboración y corrección de exámenes del concurso de traslados de la Diputación Foral de Gipuzkoa.
- Gestionar la elaboración, realización y corrección de exámenes del Consorcio de Aguas de Bizkaia.
- Implantar en procesos selectivos la evaluación de los conocimientos de Ofimática mediante la acreditación de la IT-Txartela en colaboración con el Instituto Europeo de Software y KZ-gunea.
- En el año 2005, se continúa con la organización y realización de actividades formativas y de perfeccionamiento tanto para el personal de la administración general como de la foral y local.
- Elaboración de análisis de necesidades de formación, presentación, priorización y puesta en marcha de las acciones resultantes.
- Intercambio de experiencias con otras organizaciones dedicadas a la formación y el perfeccionamiento de empleados públicos.
- Contratación de la migración e implantación de la aplicación de gestión de Cursos de Formación de cliente-servidor (sql-windows) a entorno Web en J2EE, según los estándares establecidos por el Gobierno Vasco.
- Explorar en el mercado de cursos on-line la existencia de ofertas adecuadas en diversos ámbitos formativos, seleccionando, en su caso, la oferta más adecuada.
- Preparar con la colaboración de expertos en diversas materias los contenidos de nuevos cursos on-line para su posterior puesta a disposición de las diversas administraciones.
- Impulsar la puesta a disposición desde EJIE de la nueva plataforma SABA para la oferta de cursos on-line.
- Organizar junto a otros Institutos y Administraciones diversas jornadas y seminarios sobre Administración Electrónica.

- Pixkanaka-pixkanaka, administrazio eremu guztietan gero eta prestakuntza-jarduerak gehiago euskaraz ezarri joan daitezkeen beharrezko ekintzei hasiera ematea.
- Administrazio arlo guztietan prestakuntza- eta hobetze-jardueren eskaintza horizontala sakontzea.
- EAEko hiru lurraldeetan ingelesezko prestakuntza-eskaintza garatzea.
- “Kalitatea” programako jardunak burutzen jarraitzea; 2005ean, jardun horiek batez ere dagokion kudeaketa-planaren inguruan garatzen dira.
- EAEko Administrazio Orokorra eta Foru eta Toki Administrazioek eta horien erakunde autonomiadunek bertan diharduten langileen alde bultzatzen dituzten hainbat prestakuntza-jardunen homologazioa kudeatzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioetan euskararen erabileraren normalkuntzarako III. plangintzaldietan zehar hizkuntza-prestakuntza eta hizkuntza-eskakizunean sortutako zerbitzu-eskaerei aurre egitea.
- Administrazio euskerari buruzko ikerlana, normalizazioa eta zabalkundearen areagotzea, aldizkako argitalpenak prestatuz eta dokumentuen azterketa eginez.
- IVAPen estilo liburuak bukatu, euskaraz eta gazteleraz eta bi lan hauen argitalpena egin.
- HABErekin lankidetzaren prestakuntza-beharrizan bereziei erantzuteko egokikak diren material didaktikoak egiteko.
- Euskal Idazleen Elkarteari dirulaguntza ematea Idazle Eskola proiekturako 2005-2006 ikasturtean.
- IVAPek interneten duen Web gunea eguneratu eta etengabeko berrikusketa egin erabiltzaileei gure zerbitzuak eroso erabiltzeko aukera emanez. Aurtin, “Administrazioa Euskaraz” aldizkariaren 24. zenbakitik aurrerako zenbakien edukiak errazago kontsultatzeko aurkibideak jarri ditugu.
- Web-aplikazio berri bat abian jartzea, Eusko Jaurlaritzako sailek eta erakunde autonomiadunek euskalduntze-ikastaroen plangintza egiteko banakako planen kudeaketa eta jarraipena egiteko.
- Web-aplikazio baten bideragarritasun-azterlana egiteko kontratua egitea, “Administrazioa Euskaraz” aldizkaria kudeatzeko.
- On line ikastaro pilotua abian jartzea, 4. hizkuntza-eskakizuna lortzeko.
- 38/2000 Dekretua, otsailaren 29koa, Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala arautzen duenak ezarritakoak bete daitezkeen aurrerapausuak eman.
- IDABA Itzulpenen datu-base dokumentala kudeatzeko tresna informatiko bat ezarri.
- Eusko Jaurlaritzako Itzultzaileen Sarea indartzen jarraitu, IDABA itzulpenen datu-basea ezarri eta sail eta erakunde autonomiadunetan egindako itzulpenen jarraipenari hasiera emanez.
- Iniciar las actuaciones necesarias para la progresiva impartición de un mayor número de actividades formativas en euskara en los diversos ámbitos administrativos.
- Profundizar en la oferta horizontal de actividades formativas y de perfeccionamiento en los diferentes ámbitos administrativos.
- Ampliar la oferta de formación en idioma inglés a los tres territorios de la CAPV.
- Continuar con las actuaciones derivadas del programa “kalitatea” que, durante el año 2005, se concentran en torno al correspondiente Plan de Gestión.
- Gestionar la homologación de diversas acciones formativas impulsadas por las Administraciones General, Foral y Local de la CAPV y sus Organismos Autónomos y dirigida al personal a su servicio.
- Atender a la demanda de formación lingüística en euskera y de evaluación de los perfiles lingüísticos planteada durante el III Periodo de planificación para la normalización del uso del euskera en las administraciones de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
- Profundizar en la investigación, normalización y difusión del euskera administrativo mediante publicaciones periódicas y análisis de documentos.
- Finalizar la elaboración de los libros de estilo del IVAP en euskera y castellano y la publicación de ambos trabajos.
- Colaboración con HABE en la elaboración de materiales didácticos destinados a atender necesidades formativas específicas del sector público.
- Aprobación de una subvención a Euskal Idazleen Elkartea (Asociación de Escritores Vascos) para el proyecto Idazle Eskola en el curso 2005-2006.
- Actualización y revisión permanente del espacio Web del IVAP en internet facilitando al usuario una utilización cómoda de nuestros servicios. Este año hemos introducido los índices correspondientes a los contenidos desde el n. 24 en adelante de la revista “Administrazioa Euskaraz” para facilitar su consulta.
- Puesta en producción de una nueva aplicación Web para la gestión y seguimiento, por parte de los departamentos y organismos autónomos del Gobierno Vasco, de los planes individualizados para la planificación de los cursos de euskaldunización.
- Contratación de un estudio de viabilidad de una aplicación Web, para la gestión de la revista “Administrazioa Euskaraz”.
- Puesta en marcha de un curso piloto on-line para los cursos destinados a la obtención del Perfil 4.
- Avanzar en el cumplimiento de lo establecido por el Decreto 38/2000, de 29 de febrero, por el que se regula el Servicio Oficial de Traductores.
- Implantación de una herramienta informática que permita la gestión de una base de datos documental de traducciones (IDABA).
- Continuar la consolidación de la Red de Traductores del Gobierno Vasco, con la implantación de la Base de datos de Traducciones (IDABA) y la introducción del seguimiento de las traducciones realizadas en los Departamentos y Organismos Autónomos.

- Itzulpen-eskariak, eta interpretazioak (Interneten bidez egiteko aukera) lan bakoitzari esleitutako baliabideak, lan bakoitzaren jarraipena kudeatzeko eta dokumentuen artxiboa egiteko web tresna informatiko bat ezarri.
- IZOren itzulpen-memoriak elikatu eta eguneratu.
- Langileen estatutua eta Europako Konstituzio berria itzuli.
- Zuzenketei buruzko Jardunaldiak eta Itzultzaileentzako ikastaroak, EIZIErekin lankidetzan eta "Hizkera Juridikoa eta itzulpengintza" Sinposioa Deustuko Unibertsitatearekin, antolatu eta parte hartu.

## 2006 URTERAKO HELBURU OROKORRAK

- Interneteko aplikazioa garatzea, EAEko administrazioek IVAPeko zerbitzuak eskatzeko, sinadura elektronikokoaren sisteman oinarrituta eta jakinarazpen telematikoen erregistroarekiko konexioarekin.
- Aplikazioa garatzea, SIPCA ordainketa-sistema integralari lotua, liburuak on line eskatu eta ordaindu ahal izateko.
- Administrazio publikoaren egitura, antolamendu, lan edo araubide juridikoaren eta administrazio-zientziarekin zerikusia duen hainbat gai buruzko ikastaroak, jardunaldiak eta mintegiak antolatu eta burutzea, bere kabuz edo beste institutu, unibertsitate edo erakunde batzuekin batera. Hori dena izapidetzan dauden lege-aldaketen artean, ordenamendura sartzeko posibilitate gehien dauzkatenak aukeratzu.
- Honako gai hauen inguruko hainbat azterlan edo ikerlan argitaratzea, batzuetan bere kabuz eta beste batzuetan beste erakunde batzuen lankidetzarekin: administrazio publikoa, administrazio publikoaren lan eta araubide juridikoa eta euskal administrazioaren antolamenduak eta barruko erakundeek dituzten berezitasunak. Hori dena egileek eta ikertzaileek Erakunde honi aurkezten dioten materiala abiapuntutzat hartuta.
- Euskal Herriko Unibertsitatearekin batera, graduatuei zuzendutako Herri-Ogasun eta Finantzetako ikastaroa sendotzea.
- Hainbat administrazio publikoen eskaerari jarraituz eta beraien hobekuntzarako zuzenduta, aholkularitza lana egitea.
- Zuzenbide Publikoko eta Administrazio zientziako arloetako ikerkuntza sustatzea, eta esparru horietako adituak prestatzea. Hori dena bi esparruetan: lehenik diziplina ezberdinetako ikertzaile profesionalen lana sustatzeko ekimenak (ikerketarako laguntzak eta Jesús M. Leizaola saria), eta bigarrenik karrera profesionala hasten duten ikertzaile berrien prestatzea eta ikerketa. Deialdi horien garapena ahalbideratzeko, esleituen jarraipena eta tutoretza lana egin behar da, prestatutzak eta ikerkuntzarako bekadunen kasuan bereziki.
- Herri-Arduralaritzako Euskal Aldizkariaren alderdi teknikoa kudeatzea.
- EAEn hirigintza, lurralde eta ingurumenaren arloetan aplikatu beharreko legerian prestatzeko jarduera espezializatuak antolatzea.

- Implantación de una herramienta informática web que permita la gestión de solicitudes de traducción y de interpretación (por vía internet), la asignación de recursos, el seguimiento de cada expediente y el archivo de documentos.
- Alimentación y mantenimiento de las memorias de traducción del IZO.
- Traducción del Estatuto de los Trabajadores y de la nueva Constitución Europea.
- Organización y participación activa en las jornadas sobre revisión y cursos para traductores en colaboración con EIZIE y en el Simposio "Euskera y Traducción Jurídica" con la Universidad de Deusto.

## OBJETIVOS GENERALES PARA EL AÑO 2006

- Desarrollo de una aplicación en internet, para solicitar por parte de las administraciones de la CAPV servicios al IVAP, con un sistema de firma electrónica y conexión con el registro y notificaciones telemáticas.
- Desarrollo de una aplicación para la formalización del pedido de los libros y su pago on-line, conectado con el sistema integral de pagos SIPCA.
- Organizar y celebrar, individualmente o en colaboración con otros institutos, universidades o entidades, cursos, jornadas y seminarios sobre diferentes temas vinculados a la estructura, organización, actuación y régimen jurídico de la Administración Pública y la Ciencia de la Administración, haciendo especial incidencia en las modificaciones legislativas que, de entre el amplio número de las que se están tramitando, aparezcan con más posibilidades de llegar a integrar el ordenamiento jurídico.
- Editar, individualmente o en colaboración con otras entidades, estudios o investigaciones relacionados con la Administración Pública, su actuación y régimen jurídico, y las peculiaridades organizativas e institucionales de la Administración Vasca, partiendo de los materiales que se presenten al Instituto por los autores e investigadores de los mismos.
- Consolidar, en conjunto con la Universidad del País Vasco, el curso de postgrado sobre Hacienda y Finanzas Públicas.
- Asesorar a diferentes Administraciones Públicas, a solicitud de éstas, en aspectos referentes a su funcionamiento, en aras a su perfeccionamiento y mejora.
- Promover la investigación y la formación de personal especializado en el ámbito del Derecho Público y la Ciencia de la Administración, en dos líneas diferentes: una primera que tiene por destinatarios a investigadores con diferente trayectoria profesional (ayudas a la investigación y premio Jesús M. Leizaola), y otra segunda destinada a la formación de investigadores que inician su carrera profesional (becas de investigación). Todo ello, acompañado de las labores de seguimiento y tutorización, especialmente en el caso de las becas de formación e investigación.
- Gestionar, en su vertiente técnica, la Revista Vasca de la Administración Pública.
- Organizar actividades especializadas de formación en la legislación urbanística, territorial y medioambiental de aplicación en la CAPV.

- Iraupen luzeko hirigintzako prestakuntza-jarduerak finkatzea.
- Euskal Administrazio Publikoetarako Ingurumenaren Arloko Prestakuntza Planean (2003-2006) jasotako jardunak sustatu eta kudeatzea, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailarekin eta IHOBerekin elkarlanean.
- 2000ko Lan Eskaintza Publikoari lotutako aukeraketa-prozesuen kudeaketa amaitzea.
- Aldi baterako zerbitzu-beharrizanak betetzea xede duten lan-poltsak eratzeko aukeraketa-prozesuen kudeaketa burutzea.
- Euskal administrazioek deituta karrerako funtzionarioak aukeratzeko egiten diren prozesuak epaituko dituzten epaimahai kalifikatzaileetako ordezkariak izendatzeko sistematika aldatzea, deialdia egiten duten erakundeek aurretik IVAPen baimena eskatu behar ez izateko.
- Toki eta foru administrazioekin lankidetzan aritzea haien deialdietako aukeraketa-prozesuak kudeatzen.
- Epaimahai kalifikatzaileetan IVAPen ordezkari jarduteko izendatutako langileentzat on-line prestakuntza-ekintza abiaraztea.
- Langile-aukeraketaren arloan "jardunbide egokiei" buruzko zabalkunde-ekintza burutzea.
- Lurraldean bertan hautaketa-prozesuen deialdiak bateratzeko prozedura disenatzea.
- Egun eskaintzen diren on line ikastaroak egokitzea, SABA plataforma berrira migratzeko.
- Administrazioari dagozkion arlo ezberdinei buruzko on line ikastaroetarako eduki berriak prestatzea, gai horien inguruan ez baitago produktu egokirik merkatuan.
- On line prestakuntza-eskaintza EAEko administrazio guztietara helaraztea.
- Prestakuntza- eta hobetze- jardueren eskaintza horizontala zabaltzea, batez ere, Administrazio Orokorraren eremuan.
- Ikastaroak, nola eskolan bertakoak hala on line, euskaraz egin daitezzen bultzatzea; horretarako, irakasle egokiak aukeratutako dira eta beharrezko materiala prestatuko da.
- Beste administrazio, erakunde eta eskola batzuekin elkarlanean administrazio elektronikoari eta administrazioaren eremuko beste arlo batzuei buruzko jardunaldi eta mintegiak antolatzea.
- Analisi funtzionaletan oinarrituta egindako prestakuntza-ibilbideak definitzeko lanei ekitea.
- Administrazio Orokorrean eskaintzen diren ingelesezko prestakuntza-ikastaroak optimizatzea.
- Euskal Administrazio Publikoetako langileen euskarazko eskolak bultzatu, antolatu, koordinatu eta eman. Lehen hiru hizkuntza eskakizunetarako ikastaroak HABEren laguntzaz antolatuko dira. Laugarren HEetarako ikastaroak, berriz, IVAPen baliabideekin antolatu eta neurri batean eman ere egingo dira.
- Consolidar los cursos formativos de larga duración en Urbanismo.
- Impulsar y gestionar las acciones formativas del Plan de Formación Ambiental 2003-2006 para las Administraciones Públicas Vascas, en colaboración con el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio e IHOB.
- Finalizar la gestión de los procesos selectivos correspondientes a la OPE 2000.
- Llevar a cabo la gestión de procesos selectivos convocados para la conformación de bolsas de trabajo destinadas a satisfacer las necesidades de servicios de carácter temporal.
- Modificar la sistemática para designar representantes en los Tribunales Calificadores encargados de juzgar los procesos destinados a seleccionar funcionarios de carrera convocados por las administraciones vascas de tal forma que no sea necesaria la petición previa al IVAP por parte de las instituciones convocantes.
- Colaborar con la Administración Foral y Local en la gestión de procesos selectivos por ellas convocados.
- Poner en marcha una acción formativa on-line dirigida al personal designado para representar al IVAP en Tribunales Calificadores.
- Llevar a cabo una acción divulgativa sobre "buenas prácticas" en materia de selección de personal.
- Diseñar un procedimiento para unificar convocatorias de procesos selectivos de forma territorial.
- Adecuar los cursos on-line actualmente ofertados para su migración a la nueva plataforma SABA.
- Elaboración de nuevos contenidos para cursos on-line en diferentes materias propias de la administración para las cuales no exista en el mercado un producto adecuado.
- Extender la oferta formativa on-line al conjunto de las Administraciones de la CAPV.
- Ampliar la oferta de actividades de formación y perfeccionamiento de tipo horizontal principalmente en el ámbito de la Administración General.
- Impulsar la impartición de cursos tanto presenciales como on-line en euskara en el conjunto de las administraciones seleccionando el profesorado adecuado y elaborando el material necesario.
- Organizar conjuntamente con otras administraciones e Institutos y Escuelas, jornadas y seminarios sobre administración electrónica y otras materias del campo administrativo.
- Iniciar los trabajos para la definición de los itinerarios formativos derivados de los análisis funcionales.
- Optimizar los cursos de formación en el idioma inglés en el ámbito de la Administración General.
- Impulsar, programar, coordinar y facilitar la impartición de cursos de euskera para los trabajadores de las administraciones públicas vascas. Los cursos hasta el perfil lingüístico 3 se organizan en colaboración con HABE, mientras que los cursos para el PL4 se organizan, gestionan y, en cierta medida, se imparten con recursos propios.



- Hizkuntza-prestakuntzaren ildotik jarraituz, IVAPek sustatu egingo ditu administrazio publikoaren esparruan, batez ere idatzizko erabilerarako behar den trebakuntza lortzeko aukera ematen duten ekintzak ere antolatuko ditu.
- IVAPek hizkuntza-eskakizunak egiaztatze frogak egingo ditu EAEko administrazio publikoen eremuan. Horretarako, ohiko deialdiak antolatuko ditu administrazio publikoetako langileentzat, eta parte hartuko du lanpostuak betetzeko hautaketa prozesuetako epaimahaietan, hizkuntza-eskakizunak egiaztatze egiten diren azterketak aplikatuz eta zuzenduz. Hautaketa prozesuetan egiten diren hizkuntza-eskakizunak egiaztatze azterketak deialdi bateratuen bitartez planifikatzeko aukera emango duten antolaketak arloko aldaketak aurreikusi ditu IVAPek.
- Administrazioetako euskararen erabilera normaltzeko, bultzatzeko eta errazteko beste ekintza osagarri batzuk ere gauzatu dira, hala nola Administrazioa Euskaraz aldizkaria argitaratu eta administrazio hizkerari buruzko bestelako liburuak egin eta argitaratu. Zentzu honetan, ahalegin berezia egingo da euskararen normalizazioa bultzatzeko sortzen diren proiektuak babesteko eta helburu honekin lanean diharduten erakundeekin elkarlanean aritzeko.
- "Administrazioa Euskaraz" aldizkariaren aurkibideak interneten jarraitu sartzan 1etik 24. zenbakira edukiak errazago kontsultatu ahal izateko
- Bestalde, terminologiari buruz eta hizkera juridiko-administratiboaren inguruan, interneten bidez kontsultak jaso eta erantzuteko martxan jarritako kontsulta-zerbitzuarekin jarraitzeko asmoa dago.
- Euskalduntze-ikastaroak kudeatzeko aplikazioetan eta hizkuntza-eskakizunen egiaztapenetan egokitzapen- eta mantentze-lanak egitea.
- Interneten sinadura elektronikoko sistema garatzea, EAEko administrazio guztiek, IVAPekin lankidetzat hitzarmen ugari dituztenez, informazio-sistemak kontsultatzeko aukera izan dezaten, euren langileentzat egon daitezkeen hizkuntza-gaikuntzako ikastaroen eta hizkuntza-eskakizunen berri izateko.
- Web-sistema garatu eta abiaraztea, hizkuntzarekin erlazioan dutako zalantzak argitzen laguntzen duen duda-muda zerbitzua kudeatzeko, kudeaketa-lanak hobetze aldera (gaur egun, zerbitzu hori Internet bidez eskaintzen da).
- Web-aplikazioa garatzea Administrazioa Euskaraz aldizkaria kudeatzeko.
- Hizkuntza-eskakizunen aplikazioaren barruan modulu berria abiaraztea, hautaketa-prozesuak modu zentralizatuan kudeatzeko.
- Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez, Administrazio Publikoek zein herritarrek agintzen dizkieten mota guztietako itzulpenak egingo dira, testuen baliokidetasun juridikoa bermatuz.
- Interpretaritzak saioak egingo ditugu, dagozkion organoek agintzen dizkientean.
- Euskarazko lege eta administrazio-hizkuntza eta horren terminologia aztertu, finkatu eta zabaltzeko lanak egingo ditugu. Arlo honetan Euskararen Aholku Batzordearen Terminologia Batzorde-atalarekin koordinatuko da.
- Siguiendo con la formación lingüística, el IVAP promoverá acciones relacionadas con el estudio del lenguaje administrativo y desarrollo de las destrezas necesarias principalmente para el uso escrito en el ámbito de la administración pública.
- Realizar las pruebas de acreditación de los perfiles lingüísticos en el ámbito de las administraciones públicas de la CAPV mediante las convocatorias ordinarias organizadas por el IVAP para el personal de las AAPP, así como participando en los tribunales de los procesos de selección y provisión de puestos de trabajo realizando las pruebas de acreditación de perfiles lingüísticos. El IVAP ha previsto cambios en la organización de las pruebas de acreditación de PPLL en los procesos selectivos que permitirán planificar estos procesos a través de convocatorias unificadas.
- Llevar a cabo acciones complementarias en orden a facilitar e impulsar la normalización del uso del euskera en las administraciones públicas, como la difusión de la revista Administrazioa Euskaraz y la elaboración y difusión de otros textos relacionados con el lenguaje administrativo en euskera. En este sentido, se llevarán a cabo acciones específicas al objeto de patrocinar proyectos de promoción de la normalización del euskera y de colaboración con instituciones que trabajan a favor de este objetivo.
- Continuar con la introducción en internet de los índices correspondientes a los contenidos desde el n. 1 al 24 de la revista "Administrazioa Euskaraz" para facilitar su consulta.
- Por otro lado, se va a continuar ofreciendo el servicio de consulta vía internet sobre temas relacionados con la terminología y el euskera jurídico-administrativo.
- Mantenimientos adaptativos a las aplicaciones de Gestión de Cursos de Euskaldunización y Acreditación de Perfiles Lingüísticos.
- Desarrollo de un sistema en internet con firma electrónica, para que desde las distintas administraciones de la CAPV, que tienen firmados convenios de colaboración con el IVAP, puedan tener acceso a los sistemas de información sobre cursos de capacitación lingüística y perfiles lingüísticos, en lo referente a su personal.
- Desarrollo y puesta en marcha del sistema web, para la gestión del servicio de consulta lingüística duda-muda que se ofrece hoy en día a través de internet, con el objeto de mejorar la gestión de este servicio.
- Desarrollo de una aplicación web, para la gestión de la revista Administrazioa Euskaraz.
- Puesta en marcha dentro de la aplicación de perfiles lingüísticos de un nuevo módulo para la gestión de procesos selectivos de forma centralizada.
- El Servicio Oficial de Traductores realizará las traducciones de todo tipo que le sean encargadas por las administraciones públicas y los particulares, garantizando la equivalencia jurídica de las mismas.
- Realizar los trabajos de interpretación que le sean encargados por los órganos correspondientes.
- Se trabajará en el estudio, fijación y difusión de la terminología jurídico-administrativa en euskera, en coordinación con la Comisión de Terminología del Consejo Asesor del Euskera.

- EAEko Administrazio Orokorreko eta erakunde autonomiadunetako itzultzaile-jendearekiko koordinazioa areagotuko da, itzulpen-lanen kudeaketarako laguntzak zabalduz.
- Itzulpen memoriak kudeatzeko eta partekatzeko tresna informatiko baten proiektua landuko da.
- Liburutegi juridiko birtual elebidunaren proiektua aztertuko da.
- Oinarrizko legeria euskaratzen jarraituko da.
- Web orria eguneratzen eta aberasten jarraituko da.
- Itzultzaileentzako prestakuntza-ekintzak eta zabalkunderako ekinbideak proposatu eta gauzatuko dira.
- Se avanzará en la coordinación del personal traductor de la Administración General de la CAV y OOAA, difundiendo instrumentos de gestión de traducciones.
- Se elaborará el proyecto de una herramienta informática de gestión y compartición de memorias de traducción.
- Se estudiará el proyecto de una Biblioteca jurídica virtual bilingüe.
- Se continuará traduciendo al euskera legislación de carácter básico.
- Se continuará actualizando y enriqueciendo la página Web.
- Se propondrán y materializarán actividades de formación para traductores e iniciativas de difusión.





**PROGRAMA**  
1216 ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO LANGILEAK  
AUKERATU ETA PRESTATU

**ARDURADUNA**

43 IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL  
ERAKUNDEKO ZUZENDARIA

**PROGRAMA**  
1216 SELECCIÓN Y FORMACIÓN DEL PERSONAL  
DE ADMINISTRACIONES PÚBLICAS

**RESPONSABLE**

43 IVAP

DIRECTOR DEL INSTITUTO VASCO DE  
ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

### **MEMORIA**

Programa honek sei lan-esparru ditu, aurrekontuetan ageri diren honako sei zentru hauekin bat datozenak: Zerbitzu Orokorrak, Azterlan eta Argitalpen Zerbitzua, LHIEE, Giza Baliabideetarako Zuzendariordetza, Hautaketa eta Prestakuntza.

Aurrekontuetan ageri diren zentru horiek 2006 urtean izango dituzten egitekoei dagokienean, Zerbitzu Orokorraren zeregin behinena Erakundeari lotuta dauden programa eta eskolak ekonomiaren eta finantzen aldetik ondo kudeatzea eta informatikako esparrua eta Erakundeko liburutegia kudeatzea izango da, IVAPeko langile eta erabiltzaile guztiei zerbitzu hoberena emateko.

Ageri den Azterlan eta Argitalpen zentroari dagokionez, 2006ko ekitaldiko lanak honako bi helburu hauetan oinarrituta daude: alde batetik, administrazio eta zuzenbide publikoaren arloa sakondu, ikertu eta zabaltzeko jarduerak antolatzea, eta hori lortzeko, jardunaldi eta mintegiak antolatu behar dira, hainbat argitalpen editatu behar da eta arlo horietako ikertzaileak prestatu eta bultzatu behar dira.

Beste alde batetik eta horretaz gainera, zentro honek azterlan eta txostenak ere egiten ditu euskal herri-administrazio baten edo bestearen antolaketa eta funtzionamenduaren gainean, beti ere, dena delako administrazioak eskatuta eta administrazio hori hobetzeko helburuarekin.

Lurralde eta Hiri-Ikasketetarako Euskal Eskola (LHIEE) prestakuntza eskaintzeko zentro bat da eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen barruan dago, hain zuzen ere Idazkari Nagusiaren ardurapean zuzen-zuzenean. Erakunde Autonomoak Lurralde-Antolamenduaren, Hirigintzaren eta Ingurugiroaren arloetan antolatzen dituen prestakuntzako, ikerketako eta zabalkundeko jarduerak aurrera eramaten ditu.

LHIEEren 2006rako helburuen artean, honako hauek aipa daitezke: funtzionarioak, profesionalak eta graduatu-ondokoak lurralde- eta hirigintza-plangintzarekin eta ingurumenarekin erlazioatutako grian prestatzea; eta eskolari izena ematen dioten gaiei buruz egiten diren ikerketak eta argitalpenak sustatzea.

Este programa comprende seis áreas de actuación que se corresponden con los siguientes centros presupuestarios: Servicios Generales, Estudios y Publicaciones, EVETU, Subdirección de Recursos Humanos, Selección y Formación

La actividad del centro presupuestario de Servicios Generales para el año 2006 se centra en la realización de una adecuada gestión económico-financiera de los diferentes programas y Escuelas adscritas al Instituto, así como en la gestión del área informática y de la biblioteca del mismo con el objetivo de prestar el mejor servicio a todos los usuarios y personal del IVAP.

Por lo que se refiere al centro de Estudios y Publicaciones, las tareas para el ejercicio 2006 se centran, por un lado, en la organización de actividades relativas a la profundización, investigación y difusión en el campo de la Administración y el Derecho público, tareas que se concentran en la preparación de jornadas y seminarios, y la edición de diversas publicaciones, así como en la formación y fomento de investigadores en los ámbitos antes citados.

Además de ello, por otro lado este centro elabora estudios e informes sobre organización y funcionamiento de las distintas administraciones públicas vascas, a solicitud de éstas y en orden a la mejora de las mismas.

Por su parte, la Escuela Vasca de Estudios Territoriales y Urbanos (EVETU) es el centro formativo del Instituto Vasco de Administración Pública que, bajo la directa dependencia de la Secretaría General, desarrolla la actividad formativa, investigadora y de difusión que desempeña el Organismo Autónomo en el ámbito de la Ordenación del Territorio, el Urbanismo y el Medio Ambiente.

La EVETU tiene entre sus objetivos para el año 2006 la formación de funcionarios, profesionales y postgraduados en las materias relacionadas con el planeamiento territorial, urbano y con el medio ambiente, además del fomento de la investigación y las publicaciones en las materias que dan nombre a la Escuela.

2006 ekitaldirako, aurrekontuan ageri den Hautaketa zentroaren jarduerak aurreko urteetan hasitako hautaketa-prozesuen kudeaketa amaitzea izango du helburu nagusia. Era berean, Funtzio Publikoaren Legean 31.2 artikuluan ezarritakoa beteko da beste administrazioen hautaketa-prozesuetan. Horretarako, erakunde honek ordezkari bana izango du epaimahai kalifikatzaileetan laguntzeko, edo aholkularitzan arituko da eskatzen zaizkion eginkizunetan, bai eta EAeko Administrazioaren lanposten arabera behin-behingo langileak kontratatzeko bitartekotza-eginkizunetan ere.

Aurrekontuetan ageri den Prestakuntza-zentroa dela-eta, bere lana bi arlo hauetara zuzenduta dago: batetik, sarbiderako prestakuntza ematera estatu-mailako habilitazioko funtzionarioentzako ikastaro selektiboen bitartez; bestetik, Euskadiko Administrazio Orokorreko, foru-administrazioetako eta toki-administrazioetako langileak birziklatzera eta langile horien ezagupenak eta trebetasunak hobetzera, erakunde bakoitzera egokitutako prestakuntza-planen zein prestakuntza orokorreko ekintzen bitartez, edo On-Line prestakuntzaren bidez, gaztelaniaz edo bereziki euskeraz

La actividad del centro presupuestario de Selección para el ejercicio 2006 se centrará en finalizar la gestión de los procesos selectivos iniciados en años anteriores. Asimismo, se dará cumplimiento a lo establecido en el artículo 31.2 de la Ley de la Función Pública en los procesos selectivos de otras administraciones, mediante la presencia y colaboración de un representante de este Instituto en los tribunales calificadoros, o realizando labores de asesoramiento que le sean encomendadas, incluidas las de intermediación en la contratación de personal temporal a partir de las bolsas de trabajo de la Administración de la CAPV.

